


ARRETAZ ENTZUTEN DUT**Zehaztasun guztiekin**

Komunikazioa ona ez bada, gatazkak sor daitezke. Informazioa erraz distortsionatzen da. Adi-adi entzun behar dugu ziurtatzeko entzuten dugula benetan esaten dutena.

Talde txikietan jarriko dira ikasleak. Taldekide bakoitzak zenbaki bat izango du (1-2-3-4-5) eta zehaztasun handiko irudi bat emango zaie (Ikus irudiak hurrengo orrietan).

Hasiera batean gelan geldituko dira 1 zenbakia duten ikasleak eta besteak aterako dira. 1 zenbakia dutenek arreta handiz begiratuko diote irudiari 30 segundoan; ondoren 2 zenbakia dutenak sartuko dira. 1 zenbakia dutenek 2 zenbakia dutenei kontatuko diete ikusi duten irudia nolakoa den ahalik eta zehaztasun handienarekin.


Ondoren, 3 zenbakia dutenak sartuko dira eta 2 zenbakia dutenek kontatuko diete nolakoa den irudia. Jarraian, 4 zenbakia dutenak sartuko dira eta 3 zenbakia dutenek irudia nolakoa den kontatuko diete. Gauza bera 5 zenbakia dutenekin, egonez gero.

Bukatzeko, entzuten azkenekoek talde osoaren aurrean azalduko dute nolakoa den irudia, eta ondoren irudia erakutsiko da konprobatzeko azalpenak zer neurritan deskribatu duen irudia.

Egindako jarduera baloratuko da:

- ✓ Zer gertatu da informazioarekin?
- ✓ Nola joan da aldatzen, galtzen, distortsionatzen?
- ✓ Komunikazioa beti zuzena al da? Zergatik?
- ✓ Zer egin dezakegu hobetzeko? Informazioa ematen dugunean? Eta entzuten dugunean?
- ✓ Guztiok ikuspuntu beretik egin dugu deskribapena?
- ✓ Gauza berek ematen digute atentzioa?
- ✓ Gauza berei ematen diegu garrantzia?

DESKRIBAPENA EGITEKO IRUDIAK



GURE ARTEKO HARREMANAK





GURE ARTEKO HARREMANAK

